



## LIBURUA

# Kalea



WIKIMEDIA

## FORUGH FARROKHZAD ANTOLOGIA

MUNDUKO POESIA KAIERAK,  
SUSA, 2020

### IBAI ATUTXA ORDEÑANA

**A**tzoko poemetan ari naiz bilatzen gaurko egunerokotasuna bahetze-ko imajinazio eraldatzailea. Bada, horretarako aukera eman dit Susak argitaratu eta Mirren Agur Meabek itzuli duen Munduko Poesia Kaiera berriak. Forugh Farrokhzaden poemagintzari eskainitako kaierak zehazkiago, kalea imajinatzen lagundu dit.

Liburuko ahots poetikoak kalea irudikatzean ez dio irakurleari alkitranezko egitura arkitektoniko soila aurkezten. Kalea ez zaio segituan egiten ulergarri. Kalea harremanean eraikitzen du poeta irandarraren literaturak.

Farrokhzaden poemek diote “*Gauean estrata umelean, / gure itzalek ihes egiten dute [...] gorputza zer da, kartzela edo lur askea?*”. Oparia izeneko poemak

dio, “*Nire etxera etortzen bazara, lazta-na, / ekarri kriseilu bat / eta leiho bat, / ikusi dezadan jendetza kaleka zoriontsuan*”.

Poemek etxea eta kalea elkarreraginean eraikitzen dituzte –leioa bitartekari-. Ez dago etxerik kalerik gabe eta alderantziz. Gorputzak dira espazio horiek transitatzen dituztenak eta transitatezko modu eta gaitasunek; eta transitatean gertatzen diren topaketek sortzen dituzte, gorputzak bezala, etxe-barruak eta kaleak.

Farrokhzaden literatura ezin da bere horretan ekarri gurera. Ahots poetikoa da 50eko hamarkadatik 60kora artikulatutako emakumezko ahots errebeldea. Haatik, liburuak konfinamendu honetako kaleak imajinatzen lagundu dit.

Poemek Mari Luz Estebanen artikulua bat ekarri didate gogora, aldi berean, Nerea Fillaten beste artikulua bati erreferentzia egiten diona. Estebanek “belaunaldien arteko lotura kolektiboak eta horizontalak asmatzea eta sendotzea [ren]” alde egiten du Fillaten analisiarekin elkarrizketan; hau da, “pandemiari aurre egiteko neurriak subjektu bakar baten berezitasunen neurrirra” pentsatu direla.

Iruditu zait Farrokhzaden poemek elkarrizketarekin aurrera egiten lagun dezaketela. Izan ere, belaunaldi, jatorri, genero, arraza, klase, sexualitate, gaitasun, eta hizkuntza ezberdineko gorputzen arteko topaketen ondorio den kalea (eta etxea) asmatzeke baitago oraindik. ●